

11 BIZKAIA

Zalamako zohikaztegia



Ingurumen-garrantzia

Zohikaztegiak egoera berezietan agertu eta ezaugarri nabarmenak dituzten hezeguneak dira. Euri askoko giroetan eta uraren elikagai eza dela medio, hildako landareak ez dira deskonposatzen eta lurrian metatzen dira. Sakonera aldakorreko landare hondakin oso zatikatuak direnez, ura xurgatu eta pilatu egiten dute, belakien gisa. Zalaman metro erdiko eta bi metroko sakonera izaten du zohikaztegiak. Bera da Euskal Herri osoan zohikaztegien maila berezian sartu ahal dugun bakarra. Mendi gailur

batean egotegatik, euri-ura baino ez du jasotzen, nahiz eta magalean isurketa batzuk jasotzen dituen. Halako hezeguneak ohikoak dira Europako iparrean, baina erabat apartak dira hegoalderago. Iberiar Penintsula osoan zenbait ale baino ez dago. Zohikaztegiaren inguruko landarediak atlantikoko txilarrez eta silizeko belarrez osatutako mosaiko bat taxutzen du. Txilardia espezie askoko sastraka da, *Calluna vulgaris*, *Erica cinerea*, *E. vagans* y *Daboecia*

cantabrica, non otea (*Ulex gallii*) eta iratzea (*Pteridium aquilinum*) ere agertzen den. Zohikaztegiaren bertan, lurra hezeagoa denez gero, *Calluna vulgaris*, *Erica tetralix*, *Molinia caerulea* dira ugari, eta batez ere, *Eriophorum vaginatum* motakoa, Euskal Herriko ale bakarrak, non desagertzeko zorian dagoen. Inguruetan nabarmenak dira abereak, batez ere, zaldiak eta behiak, urteetan zohikaztegiari kalte egin diotenak, etengabeko zapalketa dela-eta.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 4,9 km



2 ordu eta 21 min



Udalerria:
Karrantza

Hurbileko herria:

La Calera del Prado



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



1.326 m



549 m



898 m



133 m



ZALAMAKO
ZOHIKAZTEGIA

Zalamako zohikaztegia



Non dagoen eta nola heldu

Zalamako zohikaztegia Ordunte mendilerroaren ipar-mendebaldeko muturrean dago, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Enkarterri eskualdean, herrietatik nahiko urrun, gertuena La calera del Prado, Karrantza udalerrian.

Bizkaiko Karrantzaren eta Burgosko Mena Haranaren erdibidean dagoenez, Los Tornos mendatetik egingo dugu hurbilketa.

Los Tornos mendatetik Ordunte mendilerroaren iparreko magaletik igoko gara gailurren mailara. Ondoren, igoera pike batean bi koma hiru kilometro eginez, tontor aldera helduta, ezkerretara joko dugu Zalama mendiko gailurrera iritsiko gara (1.336 m).

Handik hirurehun bat metro aurrera zohikaztegiara helduko gara ordu eta erdi eman ondoren.

Itzuliko bidea toki beretik egingo dugu.


Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia.



Aparkalekua N629 /
Los Tornos mendatea

Errepikagailua

Zohikaztegiko hesia



Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc

Zalamako zohikaztegia



Zalamako zohikaztegia

